



POSTREEN I. LEHIAKETAREN OINARRIAK

SARRIGURENGO JAIK 2024

1. Parte hartzea librea izango da, gehienez **60 parte-hartzailerekin**.
 2. Nahi duten pertsonak parte hartu ahal izango dute, betiere oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta adina edozein dela ere. Parte-hartzaile bakoitzak **postre bakar bat** aurkeztu ahal izango du. **Ibarrean errolatutako pertsonak izango dute parte hartzeko lehentasuna.**
 3. Lehiaketan izena ematea **doakoa** da.
 4. Lehiaketara aurkeztutako postreak dastatzeko prest egon beharko dira, kontsumitzeko baldintza ezin hobetan eta behin erabiltzeko erretiluan edo ontzian.
 5. Lehiaketan era guztietako postreak aurkez daiteke: tartak, opilak, pastelak, galletak edo antzekoak.
 6. Postrea etxekoa izan beharko da. **Ez da onartuko aurrez prestatutako edo erositako postrerik.** Apaingarriak eta gainerako diseinu-ukituak ez ditu lehiakideak sortu beharko.
 7. Postrea erabilitako errezetarekin batera aurkeztuko zaio epaimahaiari (osagaiak, kantitateak, denborak, ...), eta errezeta hori Eguesibarko Udalari lagako zaio ondorio guztietarako.
 8. **Inskripzioak ekainaren 1etik 5era bitartean egingo dira**, formularioaren bidez; epea amaitutakoan edo lanpostu guztiak betetzean, ez da inskripziorik onartuko.
- <https://valledeeguesparticipa.com/participa/i-concurso-de-postres-postreen-i-lehiaketaren-oinarriak/>
9. Izena emateko unean, **izena eta bi abizen, telefono mugikorra eta postrearen izena eman beharko dira**, baita horren deskribapen laburra ere.



10. Izen-ematea egin ondoren, antolakuntzak izena eman duen pertsona bakoitzari parte-hartzaile zenbaki bat emango dio **parte hartu izana berresteko** eta egileen anonimotasuna babesteko.
11. Lehiaketaren eguna: **ekainak 9, igandea, 16: 30ean**, udaletxeko sarreran, Sarrigurenen.
12. Parte-hartzaileak **lehiaketa hasi baino 30 minutu lehenago** aurkeztu beharko dira udaletxeko sarreran, aurkezten duten postrea antolatzaileei emateko.
13. Parte-hartzaileek gutxienez banakako 5 zati txiki aurkeztu beharko dituzte epaimahaikideek dastatzeko.
14. **Antolatzaileek izendatuko dute epaimahaia.** Epaimahaiak parte hartzaile guztien inpartzialtasun, objektibotasun eta berdintasun osoko irizpideetan oinarrituta kalifikatuko du postrea. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
15. Epaimahaiak postre bakoitzari esleitutako zenbakiari jarriko dio kalifikazioa, Ez du inoiz jakingo nor den postre bakoitzaren egilea.
16. Epaimahaiak 10 kide izanen ditu:
 - Talde politiko bakoitzeko kide bat (8)
 - Sukaldari bat (1)
 - Panakery gozotegiko bi ordezkari (2)
17. Plater bakoitzaren azken kalifikazioa epaimahaikide bakoitzak emandako batez bestekoaren emaitza izango da. Balorazioa gehienez 10 punturekin egingo da, honako kontzeptu hauek kontuan hartuta:

Aurkezpena: 2 puntu (gehienez)
Originaltasuna: 3 puntu (gehienez)
Dastamena: 5 puntu (gehienez)
18. Lehiaketaren saria izango da Sarrigurengo Panakery gozotegiak postre irabazlea prestatzea, eta herritarren eskura jarriko da gutxienez astebetez. Postrearen prezioaren ehuneko bat irabazleak aukeratzen duen Eguesibarko irabazi-asmorik gabeko erakundearentzat izango da. Gainera, irabazleak bi lagunentzako gosaria izango du, establezimenduaren kortesiagatik.



19. Panakeryk egingo duen postrea, ahal den neurrian, postre irabazlearen errezetari egokituko zaio, baina aldaketak egin ahal izango dira elaborazio arrazoiengatik edo establezimenduak egokituz jotzen dituen beste arrazoi batzuegatik.

20. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzen direla dakar. Lehiaketaren irabazlea izanez gero, bere izena eta irudia Udalaren webgunean eta sare sozialetan argitaratuta agertu ahal izango dira, baita Panakery gozotegian ere. Berariaz adierazi ezean, datuak lagatzeko eta argazkiak egiteko baimena ematen duela ulertzen da. Hala eta guztiz ere, jakinarazten dizuegu Eguesibarko Udalera edozein unetan jo dezakezuela datuak eskuratzeko, ezerezteko, aurka egiteko eta zuzentzeko eskubideak erabiltzeko.